



# EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA

---

2022ko hirugarren hiruhilekoa




**LABORAL**  
kutxa

# AURKIBIDEA: EDUKIAK ETA EMAITZAK

Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren bilakaera .....	3
Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren Osagarriak .....	7
Euskal Kontsumitzailearen erosketa-erabakiak.....	13
Eranskina – Aurkibideak .....	19
Eranskina – Metodologia .....	23
Fitxa Teknikoa .....	26

# EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN BILAKAERA

---

- EAEko familien konfiantza gainbeheran
  - Estatuko eta EB-27ko familietan ere, ezkortasuna
  - eta inguruko herrialdeetan ere nabarmen sumatu da
- 


# 1 EAEko familien konfiantza gainbeheran

2022ko hirugarren hiruhilekoko datuetan agerian geratzen da EAEko familien artean kezka handia dela. Izan ere, konfiantza nabarmen gutxitu da (-22, -15 puntu) eta ezkortasuna jasan berri dugun pandemian zehar eta pandemia ostean izandako mailetatik gertu dago.

EAEko familien kezka handitu egin da 2022an, eta konfiantza pixkanaka gutxitu (+8, -7 eta -22 lehen hiruhilekotik hirugarrenera), inflazio-joera orokorraren eta, bereziki, energia arlokoaren ondorioz.

Prezioen igoera dela eta (ia zerbitzu eta ondasun guztietara zabaldu da), ekonomia-susperraldiarekin lotutako aurreikuspenak jaitsi egin behar izan dira eta, batez ere, ez da hautematen energia arloko horniduretan eta prezioetan dauden presioekin lotutako irtenbide eragingarriak. Izan ere, merkatu horiek aztoratuta daude egoera belikoaren ondorioak direla eta.

## Kontsumitzaileen konfiantza. EAE




## 2 | Estatuko eta EB-27ko familietan ere, ezkortasuna

EAEko familiek (-22) adierazi duten ezkortasuna bat dator Estatuko (-33) eta EB-27ko (-27) familiek erakutsitakoarekin eta udazkena oso zaila izango dela iragarri dute.

Konfiantzaren galera eta profil ezkorra orokortu izana bistakoagoa zen Estatuko eta Europa osoko familien artean; hain zuzen ere, EAEko familiek denbora gehixeago behar izan dute ezkortasuna eta kezka oinarri dituen iritzi horretara iristeko, eta oraindik ere txikixeagoa da.

Europako herrialdeetan ere ekonomia-susperraldiarekin lotutako iragarpenen jaitziera eta inflazio-joera suma daitezke. Joera orokorra da eta intzidentzia handiagoa da kokapen geografikoaren eta klimatologia gogorragoa duten gizarteetan. Izan ere, udazken-negura begira, energia-prezioek altu jarraituko dutela iragarri dute.




1. III. hiruilekoko datua behin behinekoa da EB-27 eta Espainiarentzako. Uztaila-abuztua batez bestekoa.

### 3 | eta inguruko herrialdeetan ere nabarmen sumatu da

Aztertutako lau herrialdeetako familien artean ezkortasuna nabari da eta iritzi bera suma daiteke EAEko familien artean ere: kasu guztietan, 2022ko hirugarren hiruhilekoko konfiantzaren adierazlea negatiboa da eta, oro har, 2020-2021eko mailetara itzuli da.

Frantziako (-20), Alemaniako (-25), Danimarkako (-16) eta Herbehereetako (-28) familien konfiantzari buruzko datuak argi erakusten du egoerak okerrera egiten jarraituko duela uste dutela: aurreikuspen horiei dagokienez, erabakigarria da inflazioa, oso igoera handiak izan baititu (abuztuko urtetik urterako tasa, KPI harmonizatua-Eurostat) Frantzia (+% 6,6), Alemanian (+% 8,8), Danimarkan (+% 9,9) eta Herbehereetan (+% 13,7). Egoera orokorra da, eta herrialde askotan bi digitutik gorakoak izan dira igoerak. Horrek eten egin du familien kontsumoaren eta inbertsioaren suspertzea.

#### Kontsumitzailearen konfiantza. EAE eta erreferentziako herrialdeak



1. III. hiruhilekoko datua behin behinekoa da EB-27 eta Espainiarentzako. Uztaila-abuztua batez bestekoa.

# EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN OSAGARRIAK

---

- ekonomia orokorraren gaineko igurikimenak asko okertu dira
- langabeziaren igoera aurreikusten dute EAEko familiek
- etxeko ekonomiaren gaineko ezkortasuna, pandemian baino handiagoa
- aurrezteko gaitasuna ahulduko du
- EAEko familiek ezkortasunean sartuta ekingo diote udazkenari


## 4 | ekonomia orokorraren gaineko igurikimenak asko okertu dira

Ekonomia orokorraren bilakaerarekin lotuta EAEko familiek dituzten igurikimenek okerrera egiten jarraitzen dute (-17 puntu) eta oso negatiboak dira (-37). Hala, 2020ko bigarren hiruhilekoan (-32) eta 2021eko lehen hiruhilekoan (-48) lortutako emaitza okerrenetara gerturatzen da. Zehazki, igo egin da (% 51tik % 68ra) hurrengo hamabi hilabeteetako egoera ekonomikoa zertxobait (% 47) edo dezente okerragoa (% 21) izango dela uste duten EAEko familien taldea.

Hala ere, 2022ko lehen eta bigarren hiruhilekoetako hazkunde ekonomikoa garrantzitsua izan da (+%1,1, hiruhileko arteko BPGren tasan, bi hiruhilekoetan; Hiruhileroko Kontu Ekonomikoak, Eustat), baina industria-jarduerak dinamismoa galtzen hasi da (-%4,2, uzaileko hilabete arteko tasan, Industria Produkzioaren Indizea, Eustat).

Hala, ekonomia orokorrarekiko konfiantza-galera hori hazkunde ekonomikoaren aurreikuspenen jaitsiera orokorrarekin lotzen da (2022 eta 2023), Europako herrialde guztietarako.

### Ekonomia orokorrari buruzko egoeraren igurikimenak. EAE






## 5 | langabeziaren igoera aurreikusten dute EAEko familiek

EAEko familiek langabeziaren bilakaeraren gainean dituzten igurikimenak negatiboak dira (-18), eta atzeraldia handia izan da aurreko hiruhilekoko datuekin alderatuta (-26 puntu) . Horixe izan da, hain zuzen ere, azken sei hiruhilekoetako emaitzarik okerrena. Izan ere, igurikimen baikorra eten eta berriro ere balio ezkorretara itzuli da (baina, oraindik ere, ez dira 2020koak bezain ezkorrak).

Agerian geratzen da ziurgabetasunez betetako egoeraren aurrean pertsonak duten iritzia; izan ere, gero eta gehiago dira langabezia igo egingo dela uste duten pertsonak (% 23tik % 49ra) eta, aldiz, gutxitu egin da langabezia jaitsi egingo dela uste dutenen ehunekoa (% 42tik % 20ra).


Dena den, eskuragarri dauden datuak oraindik ere positiboak dira: Gizarte Segurantzako afiliazioa (2022ko urtarrila-abuztua batezbestekoa) 979.736 lagunetara igo da, eta langabezia 114.293 pertsonakoa da. Kopuru horiek, bi kasuetan, 2019koak (2009tik izandako enplegu-urte onena) baino hobeak dira (+17.049 eta -1.780 pertsona, hurrenez hurren).



## 6 | etxeko ekonomiaren gaineko ezkortasuna, pandemian baino handiagoa

Familiaren ekonomiaren bilakaerarekin lotutako iritziak beheranzko joera argia erakusten du urtearen hasieratik, eta 2022ko hirugarren hiruhilekoan, nagusi dira konfiantzarik eza eta eszeptizismoa: nabarmen egin du okerrera (-8 puntu) bigarren hiruhilekoarekin alderatuta eta emaitza negatiboa da (-25), eta pandemiakoa baino okerragoa.

Familiako ekonomiaren igurikimenak lotuta daude konfiantzaren beste bi elementurekin: langabeziarekin lotutako igurikimenak (-18) eta prezioak (-57). Bi adierazleak asko egin dute okerrera urtean zehar eta horrek eragin zuzena izan du familiako ekonomiarekin lotutako konfiantzan. Horren guztiaren eraginez, gutxitu egin da bere familiaren ekonomiak berdin jarraituko duela uste dutenen taldea (% 54tik % 44ra) eta, aldiz, igo egin da zertxobait okerragoa (% 32tik % 39ra) edo dezente okerragoa (% 5etik % 9ra) izango dela uste dutenen taldea.




## 7 | aurrezteko gaitasuna ahulduko du

EAEko kontsumitzaileen aurrezki-gaitasunarekin lotutako igurikimenak zertxobait negatiboak (-6) dira eta okerrera egin dute aurreko hiruhilekoarekin (-7 puntu) alderatuta. Horrenbestez, 2021eko eta 2022ko bigarren hiruhilekoen artean izandako ibilbide positiboa eten egin da.

Emaitza horrek agerian uzten du ondasunen eta zerbitzuen prezioetan erregistratutako igoerak familiaren kontuetan izandako inpaktua. Izan ere, horrek guztiak familiaren gastua garestitu du alde batetik, eta aurrezteko eskuragarri dauden baliabideak mugatu, bestetik. Hala eta guztiz ere, aztertutako lau adierazleak (ekonomia orokorra, langabezia, familiako ekonomia eta aurrezkiak) kontuan hartuta, indize negatibo txikiena duen adierazlea da.

*Kontuan hartzekoa: Familiaren Aurrekontuen Inkesta Iraunkorrek (EIN) agerian uzten du EAEko eta Estatuko familien batez besteko gastua 2019koa baino txikiagoa izan zela 2021ean. Horrek aurrezteko baliabideen eskuragarritasuna bultzatuko zuen. Baina, 2022an, eguneroko bizitza normalizatu izana eta, batez ere, aisialdiko jarduerak leheneratu izana aurrezki-igurikimenak gutxitzeko faktore esanguratsuak izan daitezke, prezioek izandako igoeraz gain.*

### Aurrezteko gaitasunari buruzko igurikimenak. EAE



## 8 EAEko familiek ezkortasunean sartuta ekingo diote udazkenari

2022ko hirugarren hiruhilekoan, EAEko familien konfiantzak berriro egin du okerrera (-15 puntu) eta dagoeneko 2020koa (-22, urteko batezbestekoa) bezain ezkorra (-22) da.

Energia-faktura kontrolgabeak eta azken hogeitun urteotan ikusi ez den inflazio-igoerak (horren ondorioz, Europako Banku Zentralak erreferentziazko tasak igo ditu) 2022rako eta 2023rako hazkunde ekonomikoko pronostikoak gutxitu ditu. Baina, batez ere, “inflazio altua” iragarri dute; izan ere, ez da espero 2024ra arte % 2ko tasara itzultzea.

Testuinguru horretan, EAEko kontsumitzaileen konfiantza-indizea osatzen duten lau adierazleak negatiboak dira: hala, azpimarratu beharrekoak dira ekonomia orokorraren bilakaerarekin lotutako ezkortasuna (-37) eta langabezia igo egingo dela dioen aurreikuspena (-18), oso positiboa zen joera eten delarik. Baina, batez ere, inflazio-espinala eragin negatiboagoa ari da izaten familiaren ekonomiarekin lotutako igurikimenetan (-25) bizi berri dugun pandemia baino (-12 eta -8, 2020ko eta 2021eko urteko batezbestekoa). Eta, amaitzeko, EAEko familiek aurrezteko duten gaitasunak okerrera egingo duela uste dute (-6).

### Familien konfiantza-indizea eta bere osagarriak. EAE

Indizea...	2019	2020	2021	IVH-21	IH-22	IIH-22	IIIH-22	Aldea
Familien konfiantza	-2	-22	-6	0	8	-7	-22	-15
Ekonomia orokorra	-6	-33	-12	-8	3	-20	-37	-18
Etxeko ekonomia	-2	-12	-8	-9	-6	-17	-25	-8
Langabeziaren bilakaera	-4	-41	-8	10	19	8	-18	-26
Aurrezteko gaitasuna	2	-2	3	8	15	1	-6	-7

⇔ (±2 puntuko aldea)



# EUSKAL KONTSUMITZAILEEN EROSKETA-ERABAKIAK

---

- familiek uste dute prezioak gehiago igoko direla
- erosketa handiak egiteko unea ez da egokia
- eta “erosketa handiak” egiteko igurikimenez okerrera egin dute
- etxebizitza edo autoa erosteko asmoa gelditu egin da
- erosketa handiak eta inbertsioak gutxituko direla aurreratu dute




## 9 EAEko familiek uste dute prezioak gehiago igoko direla

Prezioen igoerarekin lotuta EAEko familiek dituzten igurikimenak ezkorrak dira: 2022ko hirugarren hiruhilekoan, indizearen balioa negatiboa izan da (-57 puntu) eta, horrenbestez, jaitsiera indartu egin da (-34 eta -52 lehen eta bigarren hiruhilekoetan).

Horren ondorioz, EAEko familien % 70ek uste dute prezioek orain arte baino bizkorrago egingo dutela gora. Aldiz, % 16k uste dute erritmo berean igoko direla, eta % 14k bakarrik igoera mantsoagoa izango dela. Hitz gutxitan esanda, EAEko familiek aurreikusten dute hurrengo hamabi hilabeteotan prezioek nabarmen egingo dutela gora.

Igurikimen horiek bat datoz KPI orokorrak eta azpikoak<sup>2</sup> EAEn izandako urtetik urterako igoerarekin (% 10,3 eta % 6,4, abuztuko datua), eta Estatuan (% 10,5 eta % 6,4) eta EB-27an (% 10,1 eta % 6,6, Eurostat) izandakoen antzeko mailan. Inflazio-egoera hori da, ziur asko, finantza eta ekonomia arloko agintarien kezka nagusia; izan ere, 2022rako eta 2023rako susperraldi ekonomikoko aurreikuspenak gutxitu dituzte.

Zure ustez, nola haziko dira prezioak hurrengo 12 hiletan?<sup>1</sup> (pertsonek %a)



<sup>1</sup> Azken 12 hilabetei dagokienez; <sup>2</sup> Prestatu gabeko elikagaiak eta produktu energetikoak kenduta

## 10 | erosketa handiak egiteko unea ez da egokia


**Oro har, zer iruditzen zaizu oraingo unea etxerako gaiak (altzariak, etxetresna elektrikoak, tresna elektronikoak...) erosteko?**

Gorantz doazen prezioen testuinguru honek segurtasunik eza eragiten du eta familien erosketa-erabakiak baldintza ditzake. Hala eta guztiz ere, hirugarren hiruhileko honetan, erosteko unearekin lotutako balorazioan lortutako emaitzak ia ez dira aldatu aurreko hiruhilekoekin alderatuta eta, besterik gabe, lehendik ere negatiboa zen (-36) pertzepzioa berretsi dute.

Emaitza horretan eragina du erosteko unea berdina diotela dioten familien ehunekoa txikiagoa izateak (% 51tik % 44ra). Gainera, muturreko egoerak polarizatu egin dira eta zertxobait igo da unea egokia (% 10, + 3 puntu) edo desegokia (% 46, + 4 puntu) dela diotenen ehunekoa.

*Kontuan hartzekoa: 2022ko I. eta II. hiruhilekoetan (Hiruhileroko Kontuak, Eustat) familien kontsumoa % 0,9 eta % 2 hazi zen hiruhileko arteko tasan. Hau da, oraindik ez dute kontsumoaren atzerakada erakusten.*

### Erosteko unearen balioztapena<sup>1</sup> (pertsonek %a)



<sup>1</sup> Azken 12 hilabeteetarako dagokienez


## 11 | eta “erosketa handiak” egiteko igurikimenek okerrera egin dute

Zure ustez, nolakoak izango dira etxeko erosketak edo gastuak (hala nola altzariak, etxetresna elektrikoak, etxebizitzako konponketak eta abar) datozen 12 hilabeteetan<sup>1</sup>?

EAEko familiek erosketa handiak egiteko duten asmoarekin lotutako igurikimen-indizeak okerrera egin du berriro ere (-6, -7 eta -14 lehen, bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan) eta 2021eko bigarren eta hirugarren hiruhilekoetako balio positiboetatik (+1 eta +2) aldendu da. Seguru asko, pandemiako une okerrenetan atzeratutako erosketak xurgatuko zituen horrek.

Emaitza horretan eragina du erosketak zertxobait handiagoak (% 17tik % 15era) edo berdinak (% 50etik % 43ra) izango direla adierazi duten familien jaitsierak. Aldiz, erosketak zertxobait txikiagoak izango direnen taldea igo egin da (% 20tik % 29ra). Hitz gutxitan esanda, inflazio-joera zuzendu ezean, kontsumo handiak jaitsiera izango duela iragartzen dute emaitzek.

Zure ustetan, nolakoak izango dira etxerako erosketak datozen 12 hiletan<sup>1</sup>  
(pertsonek %a)




<sup>1</sup> Azken 12 hilabeteekin alderatuz.




## 12 | etxebizitza edo autoa erosteko asmoa gelditu egin da

Familien % 1ek soilik dio etxebizitza bat erosiko duela; ehuneko hori aurreko hiruhilekoetan erregistratutakoa baino zertxobait txikiagoa da. 2022ko ekainera arte, etxebizitzarekin lotutako 12.688 salerosketa-eragiketa<sup>1</sup> egin ziren (+% 15,9 urtetik urterako tasan), baina hobekuntza-joera horretan eragina izan dezake finantzaketa garestitu izanak eta ziurgabetasuna nagusi duen testuinguruak. Izan ere, irailean, Euriborra (hamabi hilabetera) % 2 baino gehiagokoa da dagoeneko.



Ibilgailua erosiko duten familien multzoak hobetu gabe jarraitzen du (% 7,0k, bai ziur). Ibilgailu berrien matrikulazioak<sup>2</sup> (urtarrila-abuztua, 14.042 unitate) berriro egin du behera (-% 15,8, 2021eko datuekin alderatuta) eta, sektoreak bizi duen egoerari (txipen hornidura, motorizazioarekin lotutako zalantzak...) ziurgabetasun ekonomikoa gehitu behar zaio, 2018tik nabaria den beheranzko joera sendotuz.



<sup>1</sup> EIN, Jabetza-eskubideen transmisioen estatistika (etxebizitzaren salmenta); <sup>2</sup> Anfac.

## 13 | familiek erosketa handiak eta inbertsioak gutxituko direla aurreratu dute

EAEko familiek gastuarekin eta inbertsioarekin lotuta egindako igurikimenez okerrera egiten jarraitzen dute inflazio-joerarekin bat etorrira. Izan ere, “pandemiatik irtetzeari” lotutako igoerari Errusia-Ukraina gerrak energia-merkatuetan izandako inpaktua gehitu behar zaio. Hala...

- Familiak oso ezkorak dira prezioen bilakaerari dagokionez (-57); agertoki inflazionista partekatua (inguruko herrialdeekin) izateak ez du larritasuna gutxitzen. Baina, batez ere, puntuala (2022rako) izatetik, 2024raino hedatzera igaro da.
- Erosteke ahalmenean prezioen igoerak izan duen inpaktua ikusten ari dira: erosteke unearekin lotutako balorazioa negatiboa da (-36) eta erosketa handiak egiteko asmoa (-14) gutxitu du.
- Etxebizitza eta/edo ibilgailua erosteke igurikimenez gelditu daude. Etxebizitzen salerosketak hobetzen jarraitzen du (12.688 eragiketa, +% 15,9, urtarrila-ekaina urtetik urterako tasa) eta 2008ko krisitik galdutako dinamismoa berreskuratzen ari da, 2007ko balio maximoak sekula ez baitzuten berreskuratu. Bestalde, urtarrila-abuztuko (-% 15,8) datuek ibilgailu berrien matrikulazioan 2018tik izandako beheranzko joera iraunkorra berretsi dute.

EAEko familien artean kezka dagoela baieztatu da (goranzko prezioen testuinguruan barneratuta) eta horrek haien gasturako eta aurrezkiak sortzeko gaitasuna gutxitzen du. Horri guztiari, gainera, ziurgabetasun ekonomikoa eta finantzaketa garestitu izana gehitu behar zaio. Horrek guztiak inbertsioak eta gastu handiak egiteko erabakiei aurre egiteko egoera zaila sortzen du.

### Kontsumoari buruzko igurikimenez beste indize batzuk

	2019	2020	2021	IV H-21	I H-22	II H-22	III H-22	Aldea	
Prezioen bilakaeraren igurikimenez	-20	-22	-41	-64	-34	-52	-57	-5	▼
Erosteke unearen balorazioa	-5	-13	-12	-21	-24	-35	-36	-1	▶
Erosketak egiteko igurikimenez	0	-12	-2	-4	-6	-7	-14	-7	▼

↔ (±2 puntuko aldea)


# ERANSKINA – INDIZEAK

---

laburpena: familien konfiantza indizea

euskal familien konfiantza indizea, ezaugarrien arabera

beste adierazle batzuk



# I laburpena: familien konfiantzaren indizea

	2019	2020	2021	IV H-21	I H-22	II H-22	III H-22	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea								
• EAE	-2	-22	-6	0	8	-7	-22	▼
• Estatua*	-6	-23	-13	-13	-18	-26	-33	▼
• EB*	-6	-15	-9	-9	-15	-23	-27	▼
○ Frantzia*	-9	-13	-7	-7	-13	-20	-20	▶
○ Alemania*	-2	-9	-5	-4	-9	-19	-25	▼
○ Danimarka*	--	--	5	3	-3	-16	-16	▶
○ Herbehereak*	--	--	-4	-11	-16	-26	-28	▶
Osagaiak: familien konfiantza. EAE								
• Ekonomia orokorra	-6	-33	-12	-8	3	-20	-37	▼
• Etxeko ekonomia	-2	-12	-8	-9	-6	-17	-25	▼
• Langabezia	-4	-41	-8	10	19	8	-18	▼
• Aurrezkia	2	-2	3	8	15	1	-6	▼
Beste indize batzuk. EAE								
• Prezioen bilakaerari buruzko igurikimenak	-20	-22	-41	-64	-34	-52	-57	▼
• Erosteo unearen balioztapena	-5	-13	-12	-21	-24	-35	-36	▶
• Erosketak egiteko igurikimena	0	-12	-2	-4	-6	-7	-14	▼
Erosketa handiak. EAE.**								
• Etxebizitza	2,1	0,9	1,5	1,9	2,1	1,1	1,1	▶
• Autoa	6,4	5,3	6,3	8,4	9,7	7,0	7,0	▶

⇔ (± 2 puntuko aldea)

\* III. hiruhileko datuak uztaila-abuztua batez bestekoari dagozkio.

\*\* Erosteo probabilitatea (asko, nahiko, gutxi)

## II | euskal familien konfiantza indizea, ezaugarrien arabera

	2019	2020	2021	IV H-21	I H-22	II H-22	III H-22	
<b>Kontsumitzaileen konfiantza-indizea</b>								
• EAE	-2	-22	-6	0	8	-7	-22	▼
Adin-mailak								
• 25 eta 39 urte bitartean	4	-17	-4	5	10	-6	-4	▶
• 40 eta 54 urte bitartean	-2	-22	-7	-1	5	-9	-27	▼
• 55 eta 64 urte bitartean	-6	-25	-6	-1	9	-1	-30	▼
• 65 eta 74 urte bitartean	-8	-26	-8	-2	8	-11	-29	▼
Lan egoera								
• Landuna (soldatapekoa/ norbere kontura)	1	-19	-4	2	9	-6	-19	▼
• Langabea	-8	-31	-16	-9	-5	-14	-25	▼
• Ez-aktiboa (erretiratua, etxeko langilea, ikaslea...)	-6	-25	-7	-1	9	-8	-26	▼
Familia-unitatearen hileko errenta								
• 1.700 €-rainokoa	-13	-32	-19	-14	-1	-21	-31	▼
• 1.701 eta 2.800 € bitartekoa	0	-19	-6	-2	5	-6	-22	▼
• 2.800 €-tik gorakoa	4	-14	6	13	19	6	-14	▼

⇔ (±2 puntuko aldea)

### III | beste adierazle batzuk

	III H – 21	IV H – 21	I H – 22	II H – 22	III H – 22	(azkena)
BPG	4,7	4,9	5,8	5,0	--	II hiruhilekoa
Familien kontsumoa	2,5	4,0	3,2	3,0	--	II hiruhilekoa
Afiliazioa	-0,4	1,9	0,0	0,9	-1,0	uztaila-abuztua
Erregistratutako langabezia	-3,0	-2,7	-0,6	-2,4	-0,9	uztaila-abuztua
Txikizkako merkataritzaren salmenta-indizea	1,6	4,0	2,7	2,3	--	II hiruhilekoa
Etxebizitzen salerosketa	0,5	-13,2	39,3	-5,3	--	II hiruhilekoa
Ibilgailuen matrikulazioa	-12,8	3,5	-22,5	26,7	-48,8	uztaila-abuztua

1. BPG eta etxeetako kontsumoa. Ekonomiako kontuak, Eustat. Bolumen kateatuaren indizea; urtetik urterako tasa.
2. Afiliazioa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
3. Erregistratutako langabezia. SEPE. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
4. Txikizkako merkataritzako salmenta-indizea. Eustat. Hiruhilekoen arteko tasa.
5. Etxebizitzen salerosketa. Ondare-eskualdaketen estatistika, EIN. Hiruhilekoen arteko tasa.
6. Ibilgailuen matrikulazioa. Anfac. Hiruhilekoen arteko tasa.

Erreferentziako datua hiruhilekoko batez bestekoa denetan, eskura dagoen azken datua (hil batekoa edo bikoia) hartzen da kontuan, azken aldakuntza kalkulatzeko.

Erreferentziako datua hiruhilekoko metatua denetan, eskura dagoen epealdiaren gainean -azken hila aurrekoarekiko, edo azken bi hilak aurreko biekiko- kalkulatu da azken aldakuntza

# ERANSKINA– METODOLOGIA

---

kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

zer esanahi du indizearen bilakaerak?




# I | Kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

Datozen hamabi hiletan izango duten bilakaerari buruz pertsonek duten iritzia laburtzen duen adierazlea da kontsumitzailearen edo familiaren konfiantza-indizea. Hona hemen adierazleok:

- 1) Ekonomia orokorraren egoera
- 2) Etxeko ekonomiaren egoera
- 3) Langabeziaren bilakaera
- 4) Etxean aurrezteko duten gaitasuna

Euskal familietako pertsonen konfiantza-indizea<sup>1</sup> kalkulatzeko, Europako Batzordearen metodologia (galderen diseinua eta indizeen kalkulua) erabiltzen da.



<sup>1</sup> *Consumer Confidence Indicator*, dokumentu honetan familien konfiantzaren indize bezala aipatzen dena, kontsumitzaileen iritzia jasotzeko.



## II | Zer esan nahi du indizearen bilakaerak?

Konfiantza-indizea pertsonen iritziarekin osatzen da. Ekonomia orokorrak, etxeko ekonomiak, aurrezkiak eta langabeziak gaurkoaren aldean urtebete barru izango duten egoera balioztatzen dute horiek.

Bost mailatan (askoz okerragotik askoz hobegorainoko bitartean) sailkatzen da.

### Osagaiak: konfiantza-indizea

#### Hauen indize partzialak:

- Ekonomia orokorrarena
- Etxeko ekonomiarena
- Aurrezteko gaitasunarena
- Langabeziaren bilakaerarena

- Arlo bakoitzean lortutako erantzunen tratamendu agregatua indize partzial bat da.
- Eta familien konfiantza-indizea lau indize horien (kontsumitzaileen konfiantzaren osagaien) batez besteko balioa da.

Baikortasuna



Nola interpretatzen dira lortutako emaitzak?

- Balio positiboak (100era artekoak): egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek.

Ezkortasuna



- Balio negatiboak (-100era artekoak): egoerak txarrera egingo duela uste dute familia gehienek.

# Fitxa teknikoa eta metodologia

---

## **Fitxa teknikoa**

- Inkesta EAEko 800 laguni egin zaie
- Abuztuaren 22tik irailaren 2ra (2022ko III. hiruhilekoa)
- Banaketa: sexua, adin-taldeak, jarduerarekiko erlazioa eta errenta-mailak
- % 95eko konfiantza, +/- % 3ko lagin-errorea

## **Metodologia**

Kontsumitzailearen konfiantza-indizea:

- Europako Batzordea [http://ec.europa.eu/economy\\_finance/db\\_indicators/surveys/index\\_en.htm](http://ec.europa.eu/economy_finance/db_indicators/surveys/index_en.htm)